

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

1985

AGINDUA, 2025eko apirilaren 30ekoa, Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, eguneroko informazioa ematen duten komunikabide profesionalek zabaltzen dituzten edukiak sortu, landu eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa murrizteko 2025erako dirulaguntzen deialdia egitekoa.

Bai Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalak bai Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunak iritzi- eta adierazpen-askatasunerako eskubidea eta informaziorako eskubidea aldarrikatzen dituzte, pertsonen eta herrien oinarrizko eskubide besterenezin jota. Informaziorako eskubidea, era berean, gizarte demokratikoak eratzeko eta garatzeko ezinbesteko eta funtsezko osagaia da. Europar Batasunak, halaber, komunikabideen askatasuna eta pluraltasuna defendatzen ditu. Europako printzipio eta balio horiek defendatzeko asmoz, eta desinformazioaren eta fake news fenomenoaren mehatxu gero eta handiagoaren aurrean, 2015ean Europako Batzordeak desinformazioa detektatzeko eta haren aurka borrokatzeko lehen programak abiarazi zituen, eta 2018an programa horiek areagotzen hasi ziren Europako erakunde guztiak.

Adimen Artifiziala (AA), berrikuntzarako eta garapenerako eragilea izanik, kazetaritzako informazio faltsuaren itxura duten edukiak masiboki sortu eta hedatzeko tresna ere izan daiteke; Aako metodoak eta teknikak erabiliz sortutako eduki horiek, kazetaritza profesionalen egiletzarik eta/edo egiaztapenik gabekoak izanik, lanbidearen kode deontologikoen arabera, gure balio demokratikoak arriskuan jar ditzakete.

Eusko Jaurlaritza jakitun da errealitate hori itzelezko arriskua dela herritarren informaziorako, demokraziarako eta gure gizartearen garapenerako eskubiderako, eta garrantzi handikoa ematen dio komunikabide profesionalen lanari, bereziki toki-, eskualde- eta autonomia-eremuko komunikabideei, funtsezko eta taxuzko handiko eginkizuna betetzen baitute gizarteetan herritarrei jatorrizko informazio-iturri zuzena eta lehen eskukoa emanez. Komunikabideak ezinbestekoak dira herritarren informazio-eskubidea betetzeko, eta desinformazioaren aurkako borrokan ere ezinbesteko eragileak dira balio demokratikoak garatzen laguntzen baitute.

Horregatik guztiagatik, laguntza honen helburua da komunikabide profesionalek edukiak sortu, landu eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa murriztea, baita desinformazioari aurre egitea ere, bereziki adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioari. Azkenik, gizartearen eta desinformazioarekiko bereziki zaurgarriak diren taldeen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/ edo tresnak sustatu nahi ditu.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Lehendakariaren ekainaren 23ko 18/2024 Dekretuaren arabera, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailari dagozkio gizarte-komunikabideei buruzko egitekoak bai eta komunikabideei hedapena ematea ere. Funtzio horiek Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari dagozkio, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 26ko 389/2024 Dekretuaren bidez.

Gainera, Agindu hau Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren 2025-2028 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan eta 2025eko Dirulaguntzen Urteko Planean txertatuta dago. Bi plan horiek Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politika sailburuaren 2025eko otsailaren 27ko Agindu bidez onartu ziren eta biak ere Sailaren webgunean argitaratu dira. Honako esteka honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/dup-dpe-khps>

Badago deialdi hau hornitzeko kreditu nahikoa eta egokia, Euskal Autonomia Erkidegoaren 2025erako Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 20ko 8/2024 Legea aplikatuz.

Horrenbestez, honako hau,

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Eguneroko komunikabide profesionalei 2025erako dirulaguntzak emateko oinarri arautzaileak onartzea, zabaltzen dituzten edukiak sortzean, lantzean eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa murrizteko, agindu honen eranskinean aurreikusitakoaren arabera.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honetan aipatzen diren dirulaguntzak honako hauetan xedatutakoaren mende egongo dira: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legea; Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legea; Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legea; Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorrean jasotako oinarritzko araudia; azken horren Erregelamendua onartzen duen 887/2006 Errege Dekretua, eta administrazio-zuzenbideko gainerako arauak. Halakorik ezean, zuzenbide pribatuko arauak aplikatuko dira.

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beronen aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsoa aurkez diezaioke Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETAKO HIRUGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 30a.

Jaurlaritzako lehenengo lehendakariorde eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
IBONE BENGOETXEA OTAOLEA.

ERANSKINA

EGUNEROKO KOMUNIKABIDE PROFESIONALEI DIRULAGUNTZAK EMATEKO 2025. URTERAKO DEIALDIAREN OINARRIAK, ZABALTZEN DITUZTEN EDUKIAK SORTZEAN, LANTZEAN ETA ARGITARATZEAN ADIMEN ARTIFIZIAL GENERATIBOAK DUEN ERAGIN NEGATIBOA MURRIZTEKO

I. KAPITULUA

ARAU OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

Agindu honen xedea da deialdia egitea eguneroko informazioa sortu, landu eta argitaratzean adimen artifizial generatiboak duen eragin negatiboa murrizteko dirulaguntzetarako, eta deialdiaren oinarriak ezartzea.

2. artikulua.– Dirulaguntza lerroak eta baliabide ekonomikoak.

1.– Dirulaguntza hauetara bideratutako zenbateko osoa 7.000.000 eurokoa da.

2.– Deialdi honetan jasotako laguntza-ildoak kontuan hartuta, zenbateko osoa honela banatuko da:

a) 1. lerroa: EAEko esparruko eguneroko informazioa ematen dute komunikabide jeneralistentzako laguntzak, II. kapituluaren ezarritako baldintzetan. Zuzkidura: 6.000.000 euro.

b) 2. lerroa: tokiko edo eskualdeko edukiak dituzten eguneroko informazioa ematen duten komunikabide jeneralistentzako laguntzak, III. kapituluaren ezarritako baldintzetan. Zuzkidura: 1.000.000 euro. Era berean, dirulaguntza lerro hau bi azpillerrotan banatzen da:

– 2.1 azpillerroa: gutxienez 4.000 ikus-entzule dituzten komunikabideentzako laguntzak (CIESek egindako 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera). Zuzkidura: 700.000 euro.

– 2.2 azpillerroa: 4.000 ikus-entzule baino gutxiago dituzten komunikabideentzako laguntzak (CIESek egindako 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera), edo Google Analyticsen 2024ko audientziaren laburpen-txostena aurkez dezaketen toki- edo eskualde-eremuko komunikabideentzako laguntzak. Zuzkidura: 300.000 euro.

3. artikulua.– Denbora-eremua.

Diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera 2025. urtean landu beharko da, eta urte horretako abenduaren 14rako amaituta egon beharko du (egun hori barne).

4. artikulua.– Onuradun izateko betekizunak.

1.– Deialdiaren xede diren laguntzak jasotzeko moduan izango dira eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen entitate titularrak, baldin eta honako betekizun hauek betetzen badituzte:

a) Eguneroko informazioa ematen duten komunikabide pribatu jeneralistak, honelakoak:

– Prentsa idatzia.

– Hedabide natibo digitalak.

– Irratiak.

– Telebistak.

b) EAEn izatea egoitza edo lurralde-ordezkaritza.

c) EAeko biztanle guztientzat eguneroko gaurkotasuneko gertakariei buruzko informazioa eta interes orokorreko edukiak eskaintzea, edo bere eremuko biztanleentzat interes orokorreko tokiko edo eskualdeko edukiak eskaintzea.

– Gutxienez % 15 ekoizpen propioko (EAeko) edukiak izan beharko dituzte. Dirulaguntza honen ondorioetarako, irratien eta telebisten kasuan, eduki propioetat jotzen da programazioaren % 15 gutxienez izatea astelehenetik ostiralera eta 7:00etatik 24:00etara, lurraldetik deskonektatuta eta EAeko biztanleei bereziki zuzendua.

d) Gutxienez 5 langile izatea plantillan 2024ko abenduaren 31n, eta gutxienez langile-kopuru horri eustea diruz lagundu daitekeen proiektuak edo jarduerak irauten duen hilabeteetan.

2.– Aurreko atalean aurreikusitakoaz gain, onuradunek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

a) Egunean izatea zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoarekin bat etorritz (Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kargurako laguntzen eta dirulaguntzen esparruan Gizarte Segurantzarekikoak eta zerga-arloko dirulaguntzak itzultzeari buruzko agindua).

b) Dirulaguntzak egunean izatea dirulaguntzak itzultzeko betebeharrak, 2023ko otsailaren 13ko Aginduan ezarritakoaren arabera. Agindu hori Ekonomia eta Ogasuneko sailburuak eman zuen, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen direla egiaztatzeari lotuta).

c) Eskatzaileak, artikulua honetan jasotako betekizun orokorrez gain, laguntza eskatzen duen dirulaguntzaren lerroaren edo azpillerroaren betekizun espezifikoak bete beharko ditu.

d) Onuradun izanez gero, enpresa-deslokalizaziorik ez egitea, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.

3.– Ezingo dute agindu honen oinarrietan aurreikusitako dirulaguntzarik eskuratu honako erakunde hauek:

a) Dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita daudenek epai irmo baten bidez zigortuta, edo prebarikazioagatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe erabiltzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik epai irmo baten bidez zigortuta.

b) Hartzekodunen konkurtso boluntario deklaratzeko eskaria egin dutenak, edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota daudenak, hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik daudenak, epailearen esku-hartzearen mende daudenak, edo uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera desgaituta daudenak.

c) Administrazioarekin egindako edozein kontratu ebazpen irmoz suntsiarazteko arrazoiak sorrarazi eta haien errudun jo izan direnak.

d) Pertsona fisikoak, merkataritza-sozietateen administratzaileak edo beste pertsona juridiko batzuen ordezkari direnak, egoera hauetakoren batean badaude: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako egoeraren batean. Edo Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean daudenak, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

e) Egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako herrialde edo lurralde batean dutenak.

f) Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera, dirulaguntzak eskuratzeko aukera galtzeko zehapena jaso dutenak, ebazpen irmo baten bidez.

g) Armamentua ekoiztu, merkaturatu eta finantzatzen dutenak.

h) Sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik administrazio- edo zigor-zehapenen bat ezarrita dutenak.

i) Estatu-araudiaren arabera berdintasun-plana indarrean izan behar duten arren, halakorik ez dutenak.

j) Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko neurriak ezarri dituztela egiaztatu ez duten 50 langiletik gorako enpresak, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

k) Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, arau-hauste astun edo oso astun batengatik zehatuta daudenak, harik eta behar diren neurri zuzentzaileak hartu eta zehapena ordaindu arte.

l) Desgaitasuna duten pertsonentzat lege ezarritako erreserba-kuota betetzen ez dutenak, eta hori betetzeko neurri alternatiboak abian jarri direla egiaztatu gabe.

m) Europako Batzordeak laguntza bat lege kanpoko eta merkatu erkidearekin bateraezina dela erabaki ondoren, laguntzak berreskuratzeko agindu baten mende daudenak.

n) Krisialdian dauden enpresak, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (2014-07-31ko EBAO, C249).

ñ) Sektore publikoren bateko kide edo parte direnak, aplikatzekoak diren sailkapen instituzionaleko arauen ildotik.

o) Transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan jasotako kasuren batean daudenak.

p) 30.000 eurotik gorako dirulaguntza jaso nahi izanez gero, eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epreak betetzen direla egiaztatu ez dutenak.

4.– Aurreko ataletan adierazitako baldintzak eskabidea aurkezten denetik dirulaguntza likidatu arte bete beharko dira.

5.– Nolanahi ere, kanpoan geratzen dira titulartasun publikoa duten komunikabideak bai eta, gaurkotasuneko informazio orokorraren ordean, informazio espezializatua eskaintzen duten komunikabide pribatuak (kirol, zientzia, osasun, ekonomia, irratia, formula musikal, edo beste edozein motatako eduki tematikoak) eta iritzi- edo entretenimendu-edukiak dituztenak.

5. artikulua.– Eskabideak aurkeztea.

1.– Komunikabide bakoitzeko titular bakoitzak eskabide bakarra aurkeztuko du; halere, komunikabide-taldeetako kide ere izan daitezke.

2.– Komunikabide bakoitzeko titularrak deialdi honetako lerro edo azpillerroetako batera besterik ez daitezke aurkeztu. Eskabide bat baino gehiago aurkeztuz gero, dela dirulaguntza lerro berean, dela azpillerro desberdinetan, eskatzaileak atzera egin beharko du aurkeztutako eskabide guztietan, eta bakarrari eutsi.

3.– Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

4.– Interesdunak behartuta daude eskabideak bide elektronikotik izapidetzera, Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Interesdunek eskabidearen izapide guztiak eskatu, kontsultatu eta egin ditzakete EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bitartez, helbide hauetan:

a) 1. lerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250504>

b) 2. lerroa:

– 2.1 azpillerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250505>

– 2.2 azpillerroa: <https://www.euskadi.eus/zerbitzuak/1250506>

Eskabidea egin ondorengo izapideak kanal elektronikoen bidez egingo dira, jakinarazpenak barne, «Nire karpeta» atalaren bidez: EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa (<https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>).

EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoa onartutako identifikazio eta sinadura elektronikorako bitartekoak helbide honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ziurtagiri-elektronikoak>

5.– Eskabidea eta ondorengo izapideak eskatzailearen ordezkari batek egin ditzake, elektronikoki; horretarako, ordezkariak ahalordetzean erregistro elektronikoa inskribatu beharko da, helbide honetan: <https://www.euskadi.eus/ordezkarriak>. Nolanahi ere, izapideak bitarteko elektronikoen bidez egin beharko dira, interesduna behartuta baitago administrazioarekiko harreman elektronikoa izatera.

6.– Eskabideak, erantzukizunpeko adierazpenak eta gainerako ereduak izapidetzeko jarraibideak 4. puntuan jasotako EAEko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoen bitartean daude eskuragarri.

7.– Eskatzaileak Euskal Autonomia Erkidegoko edozein hizkuntza ofizialetan aurkeztu ditzake bai eskabidea bai horri erantsitako egiaztagiriak. Halaber, eskabidearen ondoriozko jarduketetan, eta prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, Euskararen Erabilera Normalizatzeko azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legearen 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan ezarritakoaren arabera.

8.– Eskabideak aurkezteak deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak berariaz eta formalki onartzea dakar.

6. artikulua.– Eskabidean aurkeztu beharreko dokumentazioa eta erantzukizunpeko adierazpenak.

1.– Eskatzaileek honako informazio honekin bete beharko dute prozeduraren eskabidearen formularioa:

- a) Eskatzailearen datuak.
- b) Komunikabidea.
- c) Komunikabide mota.

Atal honetan, eskatzaileek beren audientzia kontuan hartzea nahi duten hedabide mota guztiak hautatu beharko dituzte, prentsa idatzia, hedabide natibo digitalak, irratiak edo telebista bereizita. Audientzia zenbatzeko, ez dira kontuan hartuko erakundeek hautatu ez dituzten hedabide motak, ezta harpidetza bidezko prentsaren audientzia ezta egunerokoak ez diren argitalpenak ere.

- d) Proiektuaren edo jardueraren deskribapen laburra.
- e) Komunikazioko edo kazetaritzako titulazioa duten langileen kopurua (plantillan / kontratatzekotan direnak).
- f) Proiektuaren edo jardueraren gastuen aurrekontu xehatua eta banakatua.

2.– Administrazio honi dagozkion erregistroetan inskribatutako erakundeek:

Eskabidean adieraziko dute zein erregistrotan dauden inskribatuta. Administrazio honetakoak ez diren erregistroetan inskribatutako erakundeek honako hauek egiaztatu beharko dituzte: erakundearen legezko eraketa, bere izaera juridikoaren arabera, legezko ordezkariaren identitatea, eta ordezkari-tza-ahalorde nahikoa, honako hauen bitartez:

- Eratze-eskritura eta estatutuak, bai eta dagozkien erregistro publikoetan inskribatuta daudela egiaztatzen duten agiriak ere.
- Identifikazio fiskaleko zenbakia egiaztatzen duen txartela.
- Pertsona juridikoaren legezko ordezkariaren nortasuna egiaztatzea, bai jaso duen ordezkari-tza-ahalmena ere.

Horri dagokionez, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunek eskubidea dute jada administrazio jardulearen esku dauden edo beste edozein administrazio egin dituen dokumentuak ez aurkezteko, Administrazioak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratzerik baduenez bere kasa, non eta interesdunak ez duen horren aurka egiten.

3.– Proiektu edo jardueraren memoria xehatua, zabaltzen dituzten edukiak sortu, egin eta argitaratzeko adimen artifizial generatiboaren eragin negatiboa murrizten duena, gutxienez, honako alderdi hauek barne:

- Edukiak eta informazioak sortzeko, lantzeko eta argitaratzeko gai den diziplina anitzeko lantaldea. Horretarako, kideen profil profesionalak zehaztuko dira.
- Talde horren formakuntza/gaikuntza, adimen artifizialak komunikabideetan duen erabilerari eta eraginaren inguruan.

– Desinformazioari aurre egiteko neurriak edo mekanismoak, eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioa kontrastatzearen eta egiaztatzearen kontra egitekoak.

– Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko desinformazioaren aurka, emakumeen aurkako indarkeriaren aurka eta LGTBI pertsonen eskubideen aurka borrokatzeko neurriak edo mekanismoak.

– Gizartearen alfabetatze mediatikoa sustatzen duten ekimenak edo/eta tresnak, are gehiago, desinformazioarekiko zaugarrien diren kolektiboak aintzat hartzen dituztenak.

4.– Eskatzaileek adierazi beharko dute zenbat langile dituzten gaur egun eta zenbat izango lituzketen proiektua egiteko langile berriak kontratatuz gero; betiere, langile guztiek komunikazio edo kazetaritzako gradu-, lizentzia- edo diplomatura-titulu ofiziala izango dute. Eskatzaileek titulazio horiek aurkeztu beharko dituzte, organo kudeatzaileak egiaztatzeko.

5.– 50 langile baino gehiago dituen erakundeek ondorengo betekizunak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioa aurkeztu beharko dute:

– Sexu-jazarpena edo sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko eta horri aurre egiteko neurriak ezarri izanaren egiaztatzea, Estatuko legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ezarritako baldintzetan.

– Desgaitasuna duten pertsonentzako lanpostuak erreserbatzeko legeak ezarrita duen kuota bete izana egiaztatzen duen dokumentazioa edo kuota hori betetzeko neurri alternatiboak jarri izana egiaztatzekoa.

6.– III. kapituluko 2.2 azpilarroan aukera duten toki- edo eskualde-eremuko komunikabideek, CIESe egindako 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanean agertzen ez direnak, Google Analyticsen audientziaren laburpen-txosteneko erabiltzaile berrien datuak aurkeztu beharko dituzte, 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitarteko aldiari dagozkionak.

7.– Era berean, 2024ko abenduaren 31n plantillan 5 langile izan behar dituzte, eta hori egiaztatzeko, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiria (lehengo TC1) aurkeztu beharko dute, 2024ko abenduari dagokiona, edo erakunde ofizial bateko beste edozein egiaztatgiri, edo Zuzenbidean onartutako baliozko edozein bitarteko.

8.– Interesdunak honako betekizun hauek betetzen dituela adieraziko du, eskabidean jasotako erantzukizunpeko adierazpen bidez:

a) Ez duela jaso helburu bererako bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderik beste edozein administrazio edo ente publiko nahiz pribatuk emana.

b) Ez dagoela epai irmo bidez zigortuta dirulaguntza edo laguntza publikoak jasotzeko aukerarik gabe utzita, ez eta prebarikaziogatik, funtzionario-eroskeriagatik, ondasun publikoak bidegabe erabiltzeagatik, influentzia-trafikoagatik, iruzur egiteagatik eta legearen aurkako ordainarazpenengatik edo hirigintza-delituengatik ere, epai irmo bidez.

c) Ez duela hartzekodunen konkurtso boluntarioa deklaratzetik eskatu, ez dagoela edozein prozeduratan kaudimengabetzat jota, ez dagoela hartzekodunen konkurtsoan deklaraturik, ez dagoela epailearen esku-hartzearen mende, ez eta desgaituta ere uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera ez.

d) Ez duela Administrazioarekin lotutako inongo kontraturik suntsitzea eragin, suntsitzeko kausaren baten errudun jo dutela-eta.

e) Ez dagoela honako egoera hauetako inongotan: Administrazio Publikoen Zerbitzuko Langileen Bateriaezintasunei buruzko abenduaren 26ko 53/1984 Legean aurreikusitako bateraezintasunen araubideko egoeraren batean, ezta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta Haien Interes Gatazkak Arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legean aurreikusitako inongo egoeratan, edo ez dagoela Hauteskunde Araubide Orokorren ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoan araututako hautapen bidezko kargu batean, arau horretan edo gai hauek arautzen dituen arau autonomikoan ezarritakoaren arabera.

f) Ez duela egoitza fiskala paradisu fiskaltzat hartutako inongo herrialde edo lurraldetan.

g) Egunean dituela dirulaguntzak organo emaileari berreskuratu behar izateagatik sortutako obligazioen ordainketak Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren kontura ematen diren laguntzen eta dirulaguntzen esparruan bai zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bai dirulaguntzak itzultzeari buruzkoak betetzen direla egiaztatzeari buruzko 2023ko otsailaren 13ko Ekonomia eta Ogasuneko sailburuaren Aginduan ezarritakoaren arabera.

h) Ez duela jaso dirulaguntzak jasotzeko aukera galtzeko zehapenik, ebazpen irmo bidez, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen edo hala ezartzen duten beste lege batzuen arabera.

i) Ez duela jarduten armen ekoizpen, merkaturatze eta finantzaketaren arloetan.

j) Ez zaiola ezarri sexuan oinarrituta diskriminatzeagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko araudia ez betetzeagatik zigor administratibo edo penalik.

k) Ez dagoela zehatuta arau-hauste larri edo oso larri bategatik, Ekonomia zirkularra bultzatzeko hondakinen eta lurzoru kutsatuen apirilaren 8ko 7/2022 Legean edo Euskadiko Ingurumen Administrazioaren abenduaren 9ko 10/2021 Legean aurreikusitakoaren arabera, eta administrazio-bideko ebazpen irmo baten bidez, eta neurri zuzentzailerik hartu gabe edo zigorra ordaindu gabe.

l) Ez dagoela dirulaguntzak berreskuratzeko aginduren baten mende, Europako Batzordeak alde zuzenetik erabaki duelako laguntza legez kanpokoa eta merkatu erkidearekin bateraezina dela.

m) Ez dela krisialdian dagoen enpresa, krisialdian dauden enpresa ez-finantzarioak salbatzeko eta berregituratzeko estatu-laguntzei buruzko zuzentarauen definizioaren arabera (EBAO 2014/C 249/01).

n) Ez dela inongo sektore publikotako parte edo kide, aplikagarriak diren sailkapen instituzionaleko arauen arabera.

ñ) Ez dagoela transen berdintasun erreal eta eraginkorrerako eta LGTBI pertsonen eskubideak bermatzeko otsailaren 28ko 4/2023 Legearen 82. artikuluan jasotako inongo kasutan.

9.– Eskatutako dirulaguntzaren onuradun izanez gero, interesdunak enpresa-deslokalizaziorik ez egiteko konpromisoa hartzen du, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua arabera.

10.– Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak automatikoki egiaztatuko du, elkarreragingarritasun-zerbitzuen bidez, eskatzaileek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela dirulaguntzaren esleipen-proposamena egin aurretik.

Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzea, gutxienez, dirulaguntzaren azken ordainketa egiaztatzen den arte.

11.– Horrez gain, organo kudeatzaileak EAEko edo estatuko Hitzarmenen, Lan Akordio Kolektiboen eta Berdintasun Planen Erregistroa eta Gordailuaren bidez ofizioz egiaztatuko du berdintasun-planik badaukaten horretara behartuta dauden erakundeak.

7. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabideak eta aurkeztu beharreko dokumentazioak agindu honen oinarrietan ezarritako baldintza guztiak betetzen ez badituzte, edo haien edukia osatu gabe dagoela ikusten bada, eskatzaileari eskatuko zaio 10 egun balioduneko epean dokumentazioa osatzeko edo akatsak zuzentzeko, eta adieraziko zaio, hala egin ezean, eskaera atzera bota duela ulertuko dela, edo izapidetzeko eskubidea galdu duela. Horretarako, aldez aurretik ebazpena eman beharko du dagokionak.

8. artikulua.– Laguntzen kudeaketa.

Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria da deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak kudeatzeko organo eskuduna.

9. artikulua.– Dirulaguntzak emateko prozedura.

Agindu honen oinarrietan jasotako dirulaguntzak 20. eta 24. artikuluetan aipatzen diren laguntza-lerro edo azpillerro bakoitzean banatuko dira, norgehiagoka ez den lehiaketa bidez. Horretarako, aurkeztutako eskabide guztiak alderatuko dira eta puntuazioaren arabera ordenatuko dira, 22. eta 26. artikuluetan jasotako balorazio-irizpideak aplikatuta. Hala ere, proiektuaren edo jardueraren kalitateari buruzko irizpidean gutxienez 10 puntu lortzen ez dituzten eskabideak automatikoki baztertu egingo dira. Puntuazio nahikoa lortu duten eskatzaileei dirulaguntza proportzionalki esleituko zaie, deialdian ezarritako mugak kontuan hartuta.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Dirulaguntzen lerro eta azpillerro bakoitzean aurkeztutako eskabideak ebaluatzeko, dagokion Balorazio Batzordea eratuko da.

2.– Batzordea honako hauek osatuko dute:

a) Ana Reka Esparza, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendaria, Balorazio Batzordeko lehendakaria izango da, eta kalitatezko botoarekin ebatziko ditu gerta litezkeen berdinketak.

b) Iñigo Robredo Guinea, Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernu Saileko Estrategia Digitalaren zuzendaria.

c) Luis Barreiro Asumendi, Ogasun eta Finantza Saileko Kabineteari laguntzeko aholkularia.

3.– Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzako teknikari bat izango da batzordeko idazkaria, eta hitza izango du, baina botorik ez.

4.– Balorazio Batzordeko kideek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, honako hauek adierazteko: ez daudela Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legean aurreikusitako inongo abstentzio-kausatan, konfidentziasuna ziurtatzen dutela, eta eskatzaileek aurkeztutako dokumentazioa ez dutela erabiliko deialdi honetan ezarritako irizpideen arabera proiektuak baloratzeko ez den beste ezein helburutarako eta, txostena egin ondoren, espedienteen dokumentazio guztia deialdiaren organo kudeatzaileari itzuliko diotela.

5.– Balorazio Batzordeak, egoki irizten duenean, aholkularien laguntza eskatzerik izango du, baita proiektuko edo jarduerako gai zehatz eta espezifikoen edo zeharkako gaitako adituena ere (genero-ikuspegia, esaterako).

6.– Balorazio Batzordea behar bezala eratzeko, gutxienez Lehendakaritza eta Idazkaritza karguak dituztenek bertan egon beharko dute, baita gutxienez kideetako batek ere.

7.– Eskabideak aurkezteko epea amaitu ondoren, horretarako izendatutako Balorazio Batzordeak dirulaguntzen lerro edo azpillerro bakoitzerako jasotako eskabideak aztertu eta baloratuko ditu. Eskabideen balorazioa dirulaguntza lerroetarako ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituko da, eta Balorazio Batzordeak txosten batean jasoko du egindako ebaluazioaren emaitza.

11. artikulua.– Beste laguntza batzuekiko bateragarritasuna.

Deialdi honetan aurreikusitako dirulaguntzak bateraezinak dira beste edozein erakunde publikok edo pribatuk xede bererako eta denbora-eremu bererako eman ditzakeen bestelako dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin.

12. artikulua.– Kudeaketa, ebazpena, errekurtsioak, ebazteko eta jakinarazteko epeak, jakinarazpen- eta publizitate-modua.

1.– Organo kudeatzaileak ebazpen-proposamena egingo dio Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrari, espedientea eta dagokion Balorazio Batzordearen txostena aztertu ondoren. Ebazpen-proposamen horrek honakoak jasoko ditu: prozedura bakoitzean onuradun gisa proposatutako erakundeen zerrenda, emandako zenbatekoak, eta zein eskari ez geratu diren ontzat eman gabe eta zeintzuk ukatu diren (ukatzeko arrazoia ere bai).

2.– Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak Agindu bidez ebatziko du dirulaguntza lerroen prozedura, organo kudeatzaileak egindako ebazpen-proposamena ikusita. Aginduak zehaztuko du eskatutako dirulaguntzetatik zein eman diren eta zein ukatu (baten bat ukatu bada). Lehenengo kasuan, honako hauek adieraziko dira: onuradunen izen soziala, balorazio-fasean lortutako puntuazioa, dirulaguntza emateko proposatzen den jarduketa eta emandako zenbatekoa. Ukatutakoen kasuan, eskatzaileen izen soziala eta ukatzeko arrazoiak jasoko dira.

3.– Aurreko paragrafoan aipatutako Aginduak amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, horren aurka, interesdunek aukerako berraztertze-errekurtsioa jar diezaiokete Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrari, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin bat etorriz, hargatik eragotzi gabe administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jartzeko aukera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera.

4.– Deialdia ebazten duen Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, gehienez ere sei hilabeteko epean, eta aginduak ondoriok dituen egunetik hasita, eta jakinarazpentzat ere balioko du. Argitalpen hori egiten den egun berean, eskaeran gailu elektronikoko bat eta/edo helbide elektronikoko bat identifikatu duten interesdunei, abisua emango zaie adierazitako bitartekoetara.

5.– Prozedura ebazteko sei hilabeteko epea igarotakoan, aurreko paragrafoan ezarritako argitalpena egin ez bada, interesdunek dirulaguntza-eskaera ezetsizat joko dute, Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 22.5 artikuluan ezarritakoaren arabera, artikulua honetako 3. paragrafoan adierazitako aukerako berraztertze administrazio-errekurtsioa jartzearen ondorioetarako.

13. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Deialdiaren xede diren laguntzen onuradunek Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 14., 27. eta 42. artikuluetan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte beti; bereziki:

a) Emandako dirulaguntza onartzea. Alde horretatik, dirulaguntza eman zaiola jakinarazten duen jakinarazpena jaso eta 10 eguneko epean onuradunak ez badio berariaz eta idatziz uko egin, dirulaguntza onartu duela ulertuko da.

b) Laguntza eman den xederako erabiltzea, eta proiektua edo jarduera gauzatu izana bete eta justifikatzea.

c) Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzari jakinaraztea dirulaguntza emateko kontuan hartu den edozein inguruabar objektibo zein subjektibo aldatuz gero.

Dirulaguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira, dirulaguntzak emateko ebazpena aldatu egingo da, betiere dirulaguntzaren xedea betetzat jotzen bada. Horretarako, jarduera justifikatzen duen dokumentazioa aurkezteko epea amaitu eta hilabeteko epean, Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrak dagokion aldaketa-ebazpena emango du, eta dagozkion zenbatekoak likidatuko ditu.

d) Beste edozein administrazio, erakunde publiko edo pribatuk xede bererako emandako dirulaguntzak, diru-sarrerak edo baliabideak eskuratuz gero, horren berri ematea.

e) Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunetan dihardutela, jasotako dirulaguntzei buruzko informaziorik eskatuz gero, eskatutakoa ematea, eta diruz lagundutako jardueren kontrol, egiaztapen, jarraipen eta ikuskaritzako funtzio edo ahalmenen mende jartzea, bai eta, hala badagokio, Europar Batasuneko organo eskudunen mende ere.

f) Jasotako finantzaketaren izaera publikoaren publizitate egokia egitea, Eusko Jaurlaritzaren marka barne, dirulaguntza honen funtsekin sortu, landu eta zabaldutako edukietan.

Prentsa idatziaren eta hedabide natibo digitalen kasuan:

– Diruz lagundutako komunikabide orok publizitate-ohar bat izan beharko du nahitaez, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua daramana, eta esaldi hauxe: «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundua».

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2025eko abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai.

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua argitalpenaren kreditu-ezaugarriak adierazten diren leku berean jarriko da (editorea, zuzendaritza, idazketa, tirada, etab.); alabaina, ez baldin baliteke behar bezala jarri hor, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzarekin adostuko da onuradunaren garrantzi eta ikusgarritasun bererako ze beste toki den egokia.

– Oro har, publizitate-ohar horrek 45 cm²-ko azalera izango du gutxienez (9 x 5 cm edo antzekoa).

Irratien kasuan:

– Diruz lagundutako irrati guztiek nahitaez eduki beharko dute publizitate-ohar bat, eta esaldi hauxe: «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundua».

– Publizitate-ohar hau egunean gutxienez lau aldiz txertatuko da: bi aldiz audientzia handieneko orduetan (06:00-10:00), hirugarrena arratsaldean eta laugarrena gauean.

– Publizitate-ohar hori emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2025eko abenduaren 14ra arte egongo da entzungai.

Tokiko telebisten kasuan:

– Diruz lagundutako telebista orok nahitaez izan beharko du publizitate-ohar bat, Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua daramana, eta esaldi hauxe: «Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagunduta».

– Publizitate-ohar hau egunean gutxienez lau aldiz txertatuko da: bi aldiz audientzia handieneko orduetan (21:00-24:00), hirugarrena goizean eta laugarrena eguerdian.

– Eusko Jaurlaritzaren logotipo normalizatua emandako dirulaguntza onartzen den egunetik aurrera txertatuko da, eta 2025eko abenduaren 14ra arte egongo da ikusgai.

g) Enpresarik ez deslokalizatzea, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 49. artikulua xedatutakoaren arabera.

14. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Oro har, abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30. artikulua xedatutako horietatik izango dira diruz laguntzeko moduko gastuak.

2.– Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira eskatzaileak aurkezten duen proiektu edo jardueraren aurrekontu banakatu eta xehatua agertzen direnak, baldin eta haren garapenarekin lotuta badaude. Era berean, egindako gastutzat hartuko da proiektua gauzatzeko epean sortu eta justifikazio-aldia amaitu aurretik benetan ordaindutako gastu oro.

Beraz, hauek dira gastu finantzarriak:

– langile-kostuak (edukiak sortzen, lantzen eta zabaltzen zuzenean laguntzen duten langileak).

– adimen artifizial generatiboaren eragin negatiboa murrizteko eta desinformazioaren aurka borrokatzeko trebakuntza-kostuak.

– desinformazioaren aurka borrokatzeko, produktuak eta/edo zerbitzuak eskuratzeko kostuak (esate baterako, albiste-agentziak).

– alfabetatze mediatikoa sustatzen duten ekimen eta/edo tresnak sortu eta zabaltzeko kostuak.

3.– Langile-gastuei dagokienez, EAEko lurralde-egoitzei edo -ordezkaritzei dagozkien gastuak eta komunikabidearen titularraren zuzeneko mendeko langileei dagozkien gastuak besterik ez dira diruz lagunduko.

4.– Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion gastuak ez dira diruz lagunduko, ez behintzat onuradunek berreskuratu edo konpentsa dezaketen parteak. Horretarako, onuradunak erantzukizunpeko adierazpen bidez adierazi beharko du dirulaguntzaren xede diren eragiketetan jasandako BEZa osorik edo zati batean kentzeko edo berreskuratzeko eskubidea duen ala ez.

5.– Eskatzaileak aurkeztutako aurrekontuan, artikulua honetan adierazitakoari jarraiki, diruz lagundu ezin diren gastuak sartzen badira, organo kudeatzaileak ezabatu edo araztu egingo ditu, diruz lagundu daitezkeen gastu-aurrekontua zehazteko. Aurrekontu hori dirulaguntzaren zenbatekoa zehazteko oinarria izango da.

6.– Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikuluekin bat etorriz, diruz lagundu daitekeen zenbatekoa handiagoa bada sektore publikoko kontratazioa arautzen duen araudian kontratu txikietarako ezarritako kopuruak baino, eta betiere horrek hirugarrenekin kontratatzea eragiten badu, onuradunak hornitzaile desberdinen hiru eskaintza eskatu beharko ditu, gutxienez, obra egiteko, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa kontratatu aurretik, salbu eta obra, zerbitzu edo ondasun horien ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago halakorik egin, eman edo hornitzeko entitate nahikorik edota dirulaguntza eman aurretik egiten bada gastua. Aurkeztutako eskaintzetatik diruz lagunduko direnak aukeratzeko, eraginkortasun- eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta memoria batean berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratu ez bada. Bestalde, dirulaguntzaren justifikazioan jarri egin behar da ze eskaera jaso diren.

15. artikulua.– Azpikontratazioa.

Onuradunek ezin izango dute hirugarrenekin hitzartu dirulaguntzaren xede den proiektua edo jarduera osorik edo zati batean gauzatzea. Kontzeptu horretatik kanpo geratzen da onuradunak diruz lagundutako proiektua edo jarduera bere kabuz egiteko egin behar dituen gastuen kontratazioa.

16. artikulua.– Dirulaguntza ordaintzea.

1.– Dirulaguntzen ordainketa bi zatitan egingo da:

a) Lehenengo ordainketan, emandako zenbatekoaren % 50 aurreratuko da, behin 13.a) artikuluan ezarritako epea igarota, eta interesdunak berariaz uko egin ez badio. Baldin ordainketa aurreratuaren zenbatekoa 180.000 eurotik gorakoa bada, ordainketa alde aurretik garantizatu beharko da, ordainketaren nominala estaltzen duen finantza-erakunde edo elkarrekiko berme-sozietate baten abalaren bidez, gehi zenbateko horren % 3,25, urtebeteko interes gisa, gehi zenbateko horren % 15, gehienez ere, gerta litezkeen erreklamazio judizial edo estrajudizialaren kostu eta gastuetarako. Abalak obligazio klausula solidario bat izan beharko du onuradunarekiko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorren aurrean.

b) Bigarren ordainketan gainerako zenbatekoa ordainduko da, diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatu dela eta horren benetako kostua justifikatu ondoren, 2025eko abenduaren 15era arte.

2.– Onuradunak zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean ez dituen bitartean, ez da inolako ordainketarik egingo, ezta itzultzeko betebeharririk beteko ere.

3.– Dirulaguntza ordaintzekotan, erakundeak Eusko Jaurlaritzako Ogasun eta Finantza Saileko Hirugarrenen Erregistroan erregistratuta egon beharko du. Erregistratuta ez badago edo bankuko datuak aldatu nahi baditu, hona jo beharko du: <https://www.euskadi.eus/altaterceros> helbidean sartuta.

17. artikulua.– Dirulaguntzaren justifikazioa.

1.– Justifikazio-agiriak bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, hemen: <https://www.euskadi.eus/nirekarpeta>. Horrez gain, baita Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluko erregistro elektronikoetan ere.

2.– Kasu guztietan, proiektua edo jarduera gauzatzean benetan sortutako gastua justifikatu beharko da, eskabidean aurkeztutako aurrekontuaren arabera, 2025eko abenduaren 15era arte.

3.– Emandako dirulaguntza justifikatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 32. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio eta onuradunak, gutxienez, honako dokumentazio hau aurkeztu beharko du:

a) Diruz lagundu daitezkeen proiektuak edo jarduerak irauten duen hilabeteetan gutxienez 5 langile plantillan eduki izanaren egiaztagiria. Betebehar hori egiaztatzeko, proiektuari langile-gastuak egozten zaizkion hilabete guztietako Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren Kotizazioen Likidazioaren Ordainagiriak (lehenengo TC1) eta ordainketa-agiriak aurkeztu beharko dira, bai eta erakunde ofizial baten beste edozein agiri ere, edo zuzenbidean onartutako baliozko edozein bide, alderdi hori egiaztatzeko aukera ematen duena.

Era berean, justifikatu egin beharko da dirulaguntza jaso dezakeen proiektua edo jarduera gauzatzeko aldera gradu-, lizentziatura- edo komunikazio- edo kazetaritza-titulazio ofiziala duen jendea kontratatu izana.

b) Justifikazio-kontua. Oro har, agiri hauek jasoko ditu:

– Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla justifikatzen duen jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

– Egindako jardueren kostua justifikatzeko memoria ekonomikoa, honako hauek jasoko dituena:

- Jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, eta honakoak adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.
- Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren aurrekontu likidatua, hasieran aurreikusitako zenbateko eta benetan egindako gastuen artean izandako desbideratzeak adierazita.

Langile-gastuen kasuan, nominak eta langileei egindako banku-transferentzien ordainagiriak aurkeztuko dira, proiektuari egozten zaizkion hilabete guztietan. Nominak taldeka ordainduz gero, sortaren ordainketaren konturako zordunketaz gain, erakunde ordaintzaileari bidalitako jasotzaileen zerrenda ere aurkeztu beharko da. Zerrenda horretan langileen izenak, bakoitzari ordaindutako zenbatekoa eta karguaren data jasoko dira.

Era berean, Gizarte Segurantzako kuoten kotizazioko langileen izen-zerrendak aurkeztu beharko dira (Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorraren RNT eredia), gastuak egozten diren hilabetetakoak, enplegatuak behar bezala eta modu irakurgarrian identifikatzen dituztenak.

- Fakturak edo merkataritzako trafiko juridikoan froga-balio baliokidea duten dokumentuak, edo eraginkortasun administratiboa dutenak, aurreko paragrafoan aipatutako zerrendan jasota daudenak, eta, hala badagokio, ordainketa egiaztatzen duten agiriak.
- Hala badagokio, lehenengo paragrafoan aipatzen den zerrendan sartzen diren kostu orokorrak eta/edo zeharkakoak banatzeko irizpideak adieraztea.
- Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 30.3 artikulua aplikatuz, onuradunak eskatu behar dituen hiru aurrekontuak.

c) 60.000 eurotik beherako dirulaguntzak justifikazio-kontu sinplifikatuaren bidez justifikatuko dira, honako informazio hau azalduta:

– Dirulaguntza ematean ezarritako baldintzak betetzen direla egiaztatzeko jarduera-memoria, egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazita.

– Proiektuaren edo jardueraren gastuen zerrenda sailkatua, honakoak adierazita: hartzekoduna eta dokumentua, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data.

– Diruz lagundutako proiektuaren edo jardueraren aurrekontu likidatua, hasieran aurreikusitako zenbateko eta benetan egindako gastuen artean izandako desbideratzeak adierazita.

Dirulaguntzaren organo-kudeatzaileak behar beste frogagiri egiaztatuko du, alegia, dirulaguntza behar bezala erabili dela azaltzeko beharrezkoa agiri guztiak. Horretarako, organoak hautatutako gastuen frogagarri diren faktura edo agirien kopia eta, behar denean, ordainketaren egiaztagiria bidaltzeko eskatuko zaio onuradunari. Gastuen egiaztagiria bidali beharko dituzten entitate onuradunak hautatzeko, laginketa sistematikoko teknikei jarraituko zaie. Horrela, laginerako lehen elementuaren ausazko hautaketa egingo da, eta, ondoren, ondorengo elementuak hautatuko dira, hiruakako tarte finkoak erabiliz.

d) Jasotako finantza jatorri publikokoa dela adierazteko publizitate egokia jarri izana egiaztatzen duen dokumentazioa.

e) 30.000 eurotik gorako dirulaguntzetan, merkataritza-eragiketarako berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legean aurreikusitako ordainketa-epaiek bete direla egiaztatzen duen dokumentazioa.

18. artikulua.– Itzulketak eta ez-betetzeak.

1.– Honako hauek izango dira dirua itzultzeko arrazoiak:

a) Justifikatzeko betebeharra ez betetzea, edo behar beste ez justifikatzea.

b) Jasotako dirulaguntzak, erabat, agindu honen oinarrietan aurreikusitakoez bestelako proiektu edo jardueretarako erabiltzea.

c) Agindu honen oinarrietan ezarritako betebeharrak edo, hala badagokio, dirulaguntza emateko egintzan ezarritakoak ez betetzea.

d) Dirulaguntzaren likidazio-ebazpenean adierazitako zenbatekoa ez itzultzea, horretarako ezarritako epean.

e) Dirulaguntzen arloko beste edozein xedapenetan oro har ezarritako beste edozein kasu, bereziki Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36. artikuluan adierazitakoak.

2.– Aurreko puntuan aipatutako kasuren bat gertatu dela egiaztatzen bada, Euskal Herriko Diruzaintza Orokorrari itzuli beharko zaizkio jasotako diru-kopuruak eta Dirulaguntzen arloko berandutze-interesak. Horretarako, abenduaren 21eko 20/2023 Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko Legearen 36. eta 40. artikuluetan xedatutakoaren arabera jokatu da.

3.– Itzulitako zenbatekoak zuzenbide publikoko sarreratzat hartuko dira, legezko ondorioetarako, eta Dirulaguntzen Araubidea arautzen duen abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 46. artikuluan aurreikusitakoa izango da erantzukizunen araubidea.

4.– Ez-betetze partzialak onartuko dira, baldin eta diruz lagundutako proiektuari loturiko helburuak eta konpromisoak betetzeko egindako ahalegina argi eta garbi frogatzen bada, eta eskabidean aurkeztutako proiektu osoaren aurrekontuaren % 60 gauzatu bada gutxienez. Kasu horretan, dirulaguntza emateko agindua aldatu beharko da, proiektuaren zenbatekoa aurrekontu zenbatetsi osotik dagokion kopuruaren arabera murriztuta.

Salbuespenez, gertatu bada onuradunari egotzi dakizkioken arrazoiengatik proiektuaren ehuneko hori ezin izan dela gauzatu, laguntza kudeatzen duen organoak kasu honetan erabaki dezake ez-betetze partzialak daudela, baldin-eta: proiektuak objektiboki bakan eta bereziak badira eta, horren ondorioz, diruz lagundutako proiektuaren xedeari eta helburuari balio erantsia badakarkio.

Alde horretatik, Dirulaguntzen Araubidea Erregulatzeko abenduaren 21eko 20/2023 Legearen 36.3 artikuluekin bat, ez-betetzeen kasuan aplika daitezkeen graduazio-irizpideek proportzionaltasun-printzipioari erantzungo diote beti, eta entitate onuradunak jaso beharreko laguntzaren behin betiko zenbatekoa zehazteko aplikatuko da, baita, hala badagokio, itzuli beharreko zenbatekoa zehazteko ere.

19. artikulua.– Datuen babesari buruzko oinarrizko informazioa.

Datuak pertsonalak, tratatu ondoren, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritzaren laguntzak eta dirulaguntzak izeneko tratamendu-jardueran sartuko dira.

Arduraduna: Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen Zuzendaritza.

Helburua: hedabide sozialei zuzendutako dirulaguntzak kudeatzea.

Legitimazioa: tratamendua beharrezkoa da interes publikorako edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoen jarduna betetzeko.

Hartzaileak: ez da aurreikusten datuen komunikaziorik.

Eskubideak: zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubidea duzu, bai eta informazio gehigarrian jasotzen diren beste eskubide batzuk ere.

Informazio osagarria: gure webgunean kontsulta dezakezu datuen babesari buruzko informazio gehigarri zehatza: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/154000-capa2-eu.shtml>

Araudia: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra eta 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babestekoa eta Eskubide Digitalak Bermatzekoa.

II. KAPITULUA

EAEKO ESPARRUKO EGUNEROKO INFORMAZIOA EMATEN DUTEN KOMUNIKABIDEAK

20. artikulua.– Entitate onuradun izateko berariazko betekizunak.

1.– EAEko esparruko eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen dirulaguntza lerroan parte hartzeko modukoak izango dira hauek: eskaeran adierazitako euskarrietako audientziak batuta gutxienez 25.000 laguneko audientzia dutenak (2024ko metatuari buruz CIESek egindako Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera).

Euskara hutsean emititzen duten irratien kasuan, gutxienekoa 5.000 entzulekoa izango da.

2.– Euskarri bakoitzeko audientziak zenbatzeko, hedabideen audientziari buruzko azterlanaren datu hauek hartuko dira kontuan: CIESen 2024ko Euskadi metatua:

– Prentsa idatzia: paperezko edizioaren audientziarako, prentsari buruzko txosteneko irakurleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanakoak guztira (Astearen Eguna) absolutuak.

– Hedabide natibo digitalak: kontuan hartuko da atzo Hedabide Digitalei dagokien guztizko balioa* Gizabanakoak guztira (Hedabide Digitalen Irakurketa) Hedabideen audientzia-azterlanaren absolutuak. CIESen 2024ko Euskadi metatua.

– Irratia: irratia dagokion entzuleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanako absolutuak guztira (asteko eguneko), EAeko Hedabideen audientzia-azterlanaren arabera (CIESen 2024ko metatua).

Inola ere ez da kontuan hartuko CIESen hedabideen audientzia-azterlanean harpidetza bidezko prentsa ataleko komunikabideen audientzia, ezta egunerokoak ez diren argitalpena ere.

3.– 1. lerroko dirulaguntza jasotzeko moduan izateko, hedabideek EAeren eremukoak behar dute izan, eta ezarritako audientzia-irizpideak bete.

21. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Dirulaguntzen lerroaren zenbateko osoa 6.000.000 eurokoa da.

2.– Eskatzaile bakoitzari ezingo zaio eman dirulaguntza lerroaren zenbateko osoaren % 30 baino gehiago, ez eta proiektuaren edo jardueraren aurrekontuaren % 80 ere.

22. artikulua.– Hautapen- eta ebaluazio-irizpideak.

Eskabideen ebaluazioa honako irizpideen arabera egingo da:

1.– Audientzia potentziala (gehienez 55 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren uste izateko irismen zenbatetsia baloratuko da, komunikabideak 2024an lortu dituen audientzia-datuetan oinarrituta.

55 puntuak CIESek egindako 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren datuekiko proportzionalki banatuko dira: lerro honetan, eskaeran adierazitako euskarrien audientziak batuta, audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (55 puntu) lortuko du atal honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraiki.

2.– Kazetaritzako titulu ofiziala duten pertsonen kopurua (gehienez 5 puntu).

5 puntuak proportzionalki banatuko dira, gradu, lizentziatura edo komunikazioko edo kazetaritzako diplomatura ofiziala duten langile kopuruaren arabera. Halaber, kontuan hartuko dira gradu-, lizentziatura- edo komunikazio- edo kazetaritza-titulazio ofiziala duten pertsonen kontratazioak, diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzeko egiten badira. Gradu-titulu ofiziala, komunikazioko edo kazetaritzako lizentziatura edo diplomatura duten langile gehien dituen komunikabideak gehieneko puntuazioa lortuko du atal honetan (5 puntu), eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei arabera.

3.– Edonork eskuratzeko modukoa izatea (gehienez 5 puntu).

5 puntu emango zaizkie komunikabideei adimen artifizialaren erabilerari eta inpaktuari, desinformazioaren aurkako borrokari eta alfabetatze mediatikorako tresnen eta/edo ekimenen sustapenari buruzko informazioa % 100 irekian, nornahik irakurtzeko moduan, jartzen duten komunikabideei (harpidetza beharrik gabe).

4.– Proiektuaren edo jardueraren kalitatea (gehienez 30 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren kalitate orokorra baloratuko da, hiru irizpide orokorren arabera:

a) Adimen artifizial generatiboaren eragin negatiboa murriztea (gehienez 15 puntu).

– Diziplina anitzeko lantaldea izatea, edukiak eta informazioak sortzeko, lantzeko eta argitaratzeko. Horretarako, kideen profil profesionalak zehaztuko dira.

– Adimen artifizialak komunikabideetan duen erabilerari eta eraginari buruzko prestakuntza eta/edo gaikuntza.

b) Desinformazioaren aurkako borroka eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioaren aurkakoa (gehienez 5 puntu).

– Kazetaritzako estandar altuak erabiltzea, besteak beste, kode deontologikoak, informazioaren egiazotasuna ziurtatzeko metodoak, independentzia eta profesionaltasuna.

– Desinformazioa eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoek sortutakoa identifikatzeko, hautemateko eta dagokion bezala erantzuteko metodoak, protokoloak, tresnak edo antzekoak aplikatzea.

– Komunikazio-jarduera berritzaileak erabiltzea, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

– Desinformazioa identifikatu, antzeman eta horri dagokion bezala erantzuteko taldea prestatzea eta/edo gaitzea.

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGBTI pertsonen eskubideen arloko desinformazioaren aurka borrokatzeko baliabideak, neurriak edo tresnak (albiste faltsuak, zurrumurruak, indarkeriaren edo LGBTIfobiaren tratamendu desegokia, etab.), bereziki, eremu horietan adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioaren aurka (gehienez 5 puntu).

d) Alfabetatze mediatikoa sustatzeko ekimenak eta/edo tresnak (gehienez 5 puntu).

– Gizartearen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea (jardunaldiak, sariak, prestakuntzak, argitalpen bereziak, etab.).

– Desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeek alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea.

– Alfabetatze mediatikoan inplikaturako beste eragile batzuekiko lankidetzajarduerak (ikastetxeak, elkarteak, etab.)

– Alfabetatze mediatikorako tresnak eta/edo ekimenak zabaltzea komunikazio-jarduera berritzaileen bidez, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioaren aurrean zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

5.– Aurrekontua (gehienez 5 puntu).

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

– Baliabideen esleipena proposaturako proiektuen edo jardueren helburuen eta irismenaren arabera egokia izatea.

- Gastuen deskribapen argia eta banakatua.
- Proposatutako aurrekontuaren eta proiektuaren edo jardueraren arteko proportzionaltasuna.

23. artikulua.– Eman beharreko zenbatekoa nola zehaztu.

1.– Balorazio-prozesua amaitutakoan, aurreko artikuluko 4. irizpidean (proiektuaren edo jardueraren kalitatea) gutxienez 10 puntu lortu ez duten proiektuak edo jarduerak baztertu egingo dira, eta gainerako proiektu edo jarduerari eman beharreko zenbatekoak zehaztuko dira.

Proiektu edo jarduera bakoitzerako dagokion dirulaguntza kalkulatu da lortutako puntuazioaren arabera:

$$\text{Puntuazioaren araberrako dirulaguntzaren zenbatekoa} = 1. \text{ lerroko zuzkiduraren zenbatekoa} \times \text{proiektuak lortutako puntuazioa} / 1. \text{ lerroko emandako puntuazioen batura.}$$

Baldin eta puntuazioaren araberrako dirulaguntzaren zenbatekoa ezarritako mugak baino handiagoa bada, hots, lerro honetarako ezarritako gehieneko zenbatekoa (1. lerroko zuzkiduraren % 30) edo proiektatutako aurrekontuaren % 80 baino handiagoa, bietako txikiena esleituko da.

2.– Dirulaguntza lerroko adierazitako zuzkidura alde batera utzi gabe, eskaerarik ez izateagatik, baldintzak ez betetzeagatik edo aurkeztutako eskabideen kalitate-ezagatik lerroko ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariak birbanaketa-proposamena igorriko dio Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrari, lerro honen finantza-beharrak kontuan hartuta, eta bertan lortutako puntuazioen arabera, betiere, lerroko ezarritako gehieneko zenbatekoa errespetatuz.

III. KAPITULUA

TOKI- EDO ESKUALDE-EREMUKO EGUNEROKO INFORMAZIOA EMATEN DUTEN KOMUNIKABIDEAK

24. artikulua.– Onuradun izateko berariazko betekizunak.

1.– Hurrengo hedabide hauek har dezakete parte toki- edo eskualde-eremuko eguneroko informazioa ematen duten komunikabideen dirulaguntza lerroan:

– 2.1 azpillerroan: gutxienez 4.000 ikus-entzule dituzten hedabideak, 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren arabera (CIES).

– 2.2 azpillerroan: 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzia Azterlanaren (CIES) arabera 4.000 baino ikus-entzule gutxiago duten hedabideak, edo Google Analyticsen 2024ko audientziaren laburpen-txostena aurkez dezaketen toki- edo eskualde-eremuko komunikabideak.

2.– Tokiko telebistek 2. lerro honetako dirulaguntza baino ezin izango dute jaso, 2.1 azpillerrokoa nahiz 2.2 azpillerrokoa, toki eremukoak direlako.

3.– CIESek egindako 2024ko metatuari dagokion Hedabideen Audientzien Azterlanaren araberrako audientzia zenbatzea erabakitzen den kasuetan, honako balio hauek hartuko dira kontuan:

– Prentsa idatzia: paperezko edizioaren audientziarako, prentsari dagokion txosteneko irakurleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanakoak guztira (Astearen Eguna) Absolutuak.

– Hedabide natibo digitalak: kontuan hartuko da Hedabide Digitalei dagokien «atzo» guztizko balioa* Gizabanakoak guztira (Hedabide Digitalen Irakurketa) Hedabideen audientzia-azterlanaren absolutuak. CIESen 2024ko Euskadi metatua.

– Irratia: irratia dagokion entzuleen guztizko balioa hartuko da kontuan* Gizabanakoak guztira (Asteko eguna) Hedabideen audientzia-azterlaneko zenbaki absolutuak. CIESen 2024ko Euskadi metatua.

– Tokiko telebistak: tokiko telebisten audientzia zenbatzeko, hedabideetako audientzia-azterlanaren audientzia gehituko da: Araba metatua 2024, Bizkaia metatua 2024 eta Gipuzkoa metatua 2024. Zehazki, Telebistari* Gizabanakoak guztira (Asteko Eguna) txostenaren balio absolutua hartuko da kontuan.

Inola ere ez da kontuan hartuko CIESen hedabideen audientzia-azterlanean harpidetza bidezko prentsa deitzen duen komunikabideen audientzia, ezta egunerokoak ez diren argitalpenak ere.

25. artikulua.– Laguntzen zenbatekoa eta muga.

1.– Dirulaguntza lerroaren zenbateko osoa 1.000.000 eurokoa izango da. 600.000 euro 2.1 azpilerrora bideratuko dira eta 400.000 euro 2.2 azpilleroko hedabideetarako.

2.– Eskatzaile bakoitzari emandako gehieneko zenbatekoak ezin izango du gainditu dirulaguntza azpilerroaren zenbateko osoaren % 30, ez eta proiektuaren edo jardueraren aurrekontuaren % 80 ere.

26. artikulua.– Hautapen- eta ebaluazio-irizpideak.

Eskabideen ebaluazioa honako irizpideen arabera egingo da:

1.– Audientzia potentziala (gehienez 55 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren irismen zenbatetsia baloratuko da, komunikabideak 2024an lortu dituen audientzia-datuetan oinarrituta.

a) 2.1 azpilerrorako, CIESen Hedabideen Audientzia Azterlana hartuko da erreferentziatzat, 2024ko metatutakoari dagokiona.

55 puntuak txosteneko datuekiko proportzionalki banatuko dira: lerro honetan, eskaeran adierazitako euskarrien audientziak batuta, audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (55 puntu) lortuko du atal honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraiki.

b) 2.2 azpilerrorako, CIESen Hedabideen Audientzia Azterlana hartuko da erreferentziatzat, 2024ko metatuari dagokiona, edo 2024rako Google Analyticsen audientziaren laburpen-txostenaren erabiltzaile berrien datua, 365 egunen artean zatituta.

55 puntuak audientzia datuekiko proportzionalki banatuko dira: azpilerro honetan audientzia handiena duen komunikabideak gehieneko puntuazioa (55 puntu) lortuko du atal honetan, eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauei jarraiki.

2.– Kazetaritzako titulu ofiziala duten pertsonen kopurua (gehienez 5 puntu).

5 puntuak proportzionalki banatuko dira, gradu, lizentziatura edo komunikazioko edo kazetaritzako diplomatura ofiziala duten langile kopuruaren arabera. Halaber, kontuan hartuko dira gradu-, lizentziatura- edo komunikazio- edo kazetaritza-titulazio ofiziala duten pertsonen kontratazioak, diruz lagundu daitekeen proiektua edo jarduera gauzatzeko egiten badira. Gradu-titulu ofiziala, komunikazioko edo kazetaritzako lizentziatura edo diplomatura duten langile gehien dituen komunikabideak gehieneko puntuazioa lortuko du atal honetan (5 puntu), eta gainerakoei dagokien puntuazioa emango zaie, zuzeneko proportzionaltasun-arauen arabera.

3.– Edonork eskuratzeko modukoa izatea (gehienez 5 puntu).

5 puntu emango zaizkie komunikabideei adimen artifizialaren erabilerari eta inpaktuari, desinformazioaren aurkako borrokari eta alfabetatze mediatikorako tresnen eta/edo ekimenen sustapenari buruzko informazioa % 100 irekian, nornahik irakurtzeko moduan, jartzen duten komunikabideei (harpidetzaren beharrik gabe).

4.– Proiektuaren edo jardueraren kalitatea (gehienez 30 puntu).

Proiektuaren edo jardueraren kalitate orokorra baloratuko da, hiru irizpide orokorren arabera:

a) Adimen artifizial generatiboaren eragin negatiboa murriztea (gehienez 15 puntu).

– Diziplina anitzeko lantaldea izatea, edukiak eta informazioak sortzeko, lantzeko eta argitaratzeko. Horretarako, kideen profil profesionalak zehaztuko dira.

– Adimen artifizialak komunikabideetan duen erabilerari eta eraginari buruzko prestakuntza eta/edo gaikuntza.

b) Desinformazioaren aurkako borroka eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioaren aurkakoa (gehienez 5 puntu).

– Kazetaritzako estandar altuak erabiltzea, besteak beste, kode deontologikoak, informazioaren egiazkotasuna ziurtatzeko metodoak, independentzia eta profesionaltasuna.

– Desinformazioa eta, bereziki, adimen artifizial generatiboko metodoek sortutako desinformazioa identifikatzeko, hautemateko eta dagokion bezala erantzuteko metodoak, protokoloak, tresnak edo antzekoak erabiltzea.

– Komunikazio-jarduera berritzaileak, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

– Desinformazioa identifikatu, antzeman eta horri behar bezala erantzuteko taldea prestatzea eta/edo gaitzea.

c) Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, emakumeen aurkako indarkeriaren eta LGTBI pertsonen eskubideen arloko desinformazioaren aurka borrokatzeko baliabideak, neurriak edo tresnak (albiste faltsuak, zurrumurruak, indarkeriaren edo LGTBIfobiaren tratamendu desegokia, etab.), bereziki, eremu horietan adimen artifizial generatiboko metodoekin sortutako desinformazioaren aurka borrokatzekoak (gehienez 5 puntu).

d) Alfabetatze mediatikoa sustatzeko ekimenak eta/edo tresnak (gehienez 5 puntu).

– Gizartearen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea (jardunaldiak, sariak, prestakuntzak, argitalpen bereziak, etab.).

– Desinformazioarekiko zaurgarrienak diren adin-taldeen alfabetatze mediatikorako ekimenak eta/edo tresnak garatzea.

– Alfabetatze mediatikoan inplikaturako beste eragile batzuekiko lankidetzajarduerak (ikastetxeak, elkarteak, etab.).

– Alfabetatze mediatikorako tresnak eta/edo ekimenak zabaltzea komunikazio-jarduera berritzaileen bidez, bai edukian, bai formatuan edo euskarrian, publiko espezifiko batzuetara iristeko, bereziki, desinformazioaren aurrean zaurgarrienak diren adin-taldeetara.

5.– Aurrekontua (gehienez 5 puntu).

Honako alderdi hauek baloratuko dira:

– Baliabideen esleipena proposatutako proiektuen edo jardueren helburuen eta irismenaren arabera egokia izatea.

– Gastuen deskribapen argia eta banakatua.

– Proposatutako aurrekontuaren eta proiektuaren edo jardueraren arteko proportzionaltasuna.

27. artikulua.– Eman beharreko zenbatekoa zehaztea.

1.– Balorazio-prozesua amaitutakoan, aurreko artikuluan aurreikusitako 4. irizpidean (proiektuaren edo jardueraren kalitatea) gutxienez 10 puntu lortu ez duten proiektuak edo jarduerak baztertu egingo dira, eta gainerako proiektu edo jarduerari eman beharreko zenbatekoak zehaztuko dira.

Proiektu edo jarduera bakoitzari dagokion dirulaguntza kalkulatu da lortutako puntuazioaren arabera:

$$\text{Puntuazioaren araberako dirulaguntzaren zenbatekoa} = \text{Azpilerroko zuzkiduraren zenbatekoa} \times \frac{\text{proiektuak lortutako puntuazioa}}{\text{dagokion azpilerrorako emandako puntuazioen batura.}}$$

Baldin eta puntuazioaren araberako dirulaguntzaren zenbatekoa ezarritako muga baino handiagoa bada, hots, lerro honetarako ezarritako gehieneko zenbatekoa (% 30) edo proiektatutako aurrekontuaren % 80 baino handiagoa, bietako txikiena esleituko da.

2.– Dirulaguntza lerrorako adierazitako zuzkidura alde batera utzi gabe, eskaerarik ez izateagatik, baldintzak ez betetzeagatik edo aurkeztutako eskabideen kalitaterik ezagatik lerrorako ezarritako zenbatekoa agortzen ez bada, Kabinetearen eta Gizarte Hedabideen zuzendariak baliabide ekonomikoak birbanatzeko proposamena igorriko dio Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko titularrari. Birbanaketa horrek azpillerroen finantza-beharrak hartuko ditu kontuan, eta horietako bakoitzean lortutako puntuazioen arabera egingo da. 2.1 azpillerroko soberakina birbanatu ondoren beste soberakin bat sortzen bada, 2.2 azpillerroko hasierako zuzkidura handituko da, betiere, azpillerroetarako ezarritako gehieneko zenbatekoak errespetatuz.